BESTELAKO XEDAPENAK

JUSTIZIA ETA HERRI ADMINISTRAZIO SAILA

3532

AGINDUA, 2011ko maiatzaren 16koa, Justizia eta Herri Administrazioko sailburuarena, «Fundación Gestilan» Fundazioa Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroan inskribatzeko dena.

Derioko (Bizkaia) «Fundación Gestilan» delakoa Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroan inskribatzeko eskatuz aurkeztutako espedientea aztertu da.

AURREKARIAK

1.- Francisco Javier Laya Azcona jaunak, María Josefa Rivero Alonso andreak eta Francisco Javier Laya Rivero jaunak «Fundación Gestilan» eratu dute, Euskadiko Elkargoko notario Antonio José Martinez Lozano jaunaren aurrean (protokolo-zenbakia: 3715) egiletsitako eskritura publikoaren bidez.

Eskritura hori 2010eko abenduaren 30ean sartu zen Justizia eta Herri Administrazio Saileko Erregistroan.

Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Babeslaritzaren Aholku Batzordeko Batzorde Teknikoa 2011ko apirilaren 8an bildu zen fundazioaren helburuak zilegi eta guztiontzako onuragarri direla egiaztatzeko. Batzordearen iritziz, xedeok zilegi eta guztiontzako onuragarri dira, baina aldeko txostena eman aurretik, dokumentazio osagarria aurkezteko eskatu dio fundazioari, ikuspegi ekonomiko-finantzariotik proiektua bideragarria dela bermatzeko.

Gauzak horrela, interesatuei eskaera hori egin zaie, eta eurek 2011ko maiatzaren 11n aurkeztu dute dagokion dokumentazioa.

2.- «Fundación Gestilan» Fundazioaren helburua estatutuen 3. artikuluan dago jasota.

Fundazioaren xedea da zuzeneko ekintza-programak eta sustapen- eta laguntza-programak egitea, hain zuzen, osasun-arazoengatik edo desgaitasun fisiko, sentsorial edo mentalagatik, edo arrazoi kultural edo sozialengatik, baztertuta geratzeko arriskuan dauden pertsonak edo giza taldeak gizarteratu eta laneratzeko; zeregin horretan, Fundazioak bere aldetik jardun dezake, edo botere publikoekin eta entitate eta erakunde publiko zein pribatuekin hitzarmenak eginez. Ildo horretatik, baztertutakotzat hartuko dira zenbait eskubide sozial baliatzerik ez daukaten pertsonak, batik bat lanerako eskubidea, baina baita beste hauek ere: hezkuntza, prestakuntza, kultura, osasun, etxebizitza duin eta gizarte babeserako eskubidea.

Laneratzea lan-merkatuan sartzeko aukerak eskainiz eta erraztuz bideratuko da; izan ere, lan-arloan parte hartzerik ez izateak edo parte-hartze murritza izateak bazterketa-prozesuaren hasiera eragiten dute, ia halabeharrez, eta horrek zuzeneko ondorioak ditu beste eskubide batzuk baliatzeko orduan.

Esparru objektibo horretan, hainbat jarduera garatuko dira, hala nola: Zentro okupazionalak abian jartzea, hezkuntza-programak, lanbide heziketako eta lanbide-trebakuntzako programak, lanpostuaren baldintzak hobetzeko eta egokitzeko programak, dohaintza edo diru-laguntza bidez

sustapen-programak ezartzea, bekak eta laguntzak ematea, ikastaroak eta mintegiak antolatzea... eta abar.

3.- Fundazioaren helbidea, estatutuetako 5. artikuluan adierazten denez, hauxe da: Ugaldeguren i, 6. pabilioia, Derio (Bizkaia).

4.- Hasierako dotazioa hogeita hamar mila eurokoa (30.000) da, eta kopuru hori ordaindu dela jasota geratu da erregistro-inskripzioan, hala agintzen baitu Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroaren Erregelamendua onartzen duen ekainaren 19ko 101/2007 Dekretuaren 37.1.c artikuluak.

5.- Patronatuari dagokio fundazioa ordezkatu, administratu eta gobernatzea. Patronatuko kideek dohainik beteko dituzte beren egitekoak, fundazioaren estatutuetako 9. eta 12. artikuluetan ezarritakoaren arabera.

6.- Hasierako Patronatua, Estatutuetako 11. artikuluan ezarritakoaren haritik Fundazioaren eraketa-eskrituran xedatutakoaren arabera, honako hauek osatzen dute:

Kargua		Iraupena
Lehendakaria	Francisco Javier Laya Azcona jauna	Mugagabea
Idazkaria	Francisco Javier Laya Rivero jauna	Mugagabea
Diruzaina	María José Rivero Alonso andrea	Mugagabea

Denek onartu dituzte dagozkien karguak, Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioei buruzko ekainaren 17ko 12/1994 Legearen 12.1 artikuluan ezarritakoaren arabera.

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

Lehenengoa.- Justizia eta Herri Administrazioko sailburuari dagokio Fundazioaren eraketa inskribatzeko espedientea agindu bidez ebaztea. Hala agintzen da Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioei buruzko ekainaren 17ko 12/1994 Legearen 40. artikuluan; halaber, Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroaren Erregelamendua onartzen duen ekainaren 19ko 101/2007 Dekretuaren 3. artikuluan; eta Justizia eta Herri Administrazio Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen abuztuaren 28ko 472/2009 Dekretuko 4. artikuluan.

Bigarrena.- Legitimazioa daukan pertsona batek sustatu du espediente hau. Espedienteari, bestalde, funtsezkotzat jotzen diren datu eta agiriak erantsi zaizkio, eta, bereziki, bete egin dira Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioei buruzko ekainaren 17ko 12/1994 Legearen 6., 7. eta 9. artikuluetan eta Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroaren Erregelamendua onartu zuen ekainaren 19ko 101/2007 Dekretuaren 36. artikuluan eta hurrengoetan ezarritako eskakizunak.

Aipatutako arauak eta, oro har, kasu honetan aplika daitezkeen gainerakoak ikusirik

Justizia eta Herri Administrazioko sailburuak honako hau

EBATZI DU:

Lehenengoa.- Gaurko datarekin, eta F-298 zenbakiaz, Derioko (Bizkaia) «Fundación Gestilan» delakoa Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroan inskribatzea, bai eta patronatuko hasierako osaera ere. Patronatuko kideak seigarren aurrekarian aipatzen dira eta guztiek berariaz onartu dituzte beren karguak.

Bigarrena.- Fundazio hori, bere helburuak kontuan hartuta, Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroko 2. sekzioan inskribatzea, Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroaren Erregelamendua onartzen duen ekainaren 19ko 101/2007 Dekretuaren 2.2 artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz.

Hirugarrena.- Agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzea.

Agindu honek administrazio-bidea amaitzen du, eta haren aurka aukerako berraztertzeko errekurtsoa aurkez dakioke Justizia eta Herri Administrazioko sailburuari, hilabeteko epean, agindua jakinarazten den egunaren biharamunetik aurrera; bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez daiteke, Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzietako Salan, bi hilabeteko epean, agindua jakinarazten den egunaren biharamunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2011ko maiatzaren 16a.

Justizia eta Herri Administrazioko sailburua,
IDOIA MENDIA CUEVA.